



Egungo egoera dela-eta aurretik izena eman ez zuten enpresak orain interesa badute **IZENA EMATEA BERRIRO IREKI** da

WINE PARIS & VINEXPO PARIS 2022

2022ko otsailaren 14-16

Informazio gehiago:

Lucía de Artaza

94 470 65 00

agro@camarabilbao.com

Lekua: Paris Expo Porte de Versailles

Maiztasuna: Urtean behin

Norentzak: upategiak eta ardo ekoizleak, sektoreko handizkako saltzaileak, inportatzaileak, esportatzaileak eta banatzaileak.

Izena emateko OHIZ KANPOKO epea:

2021eko URRIaren 27a

Webgunea: www.vinexposium.com/wineparis-vinexpo

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Euskadiko elikagaien industriari kanpoan sustatzeko jardueren artean, **WINE PARIS & VINEXPO PARIS 2022** azokan euskal enpresen partaidetza taldekatua antolatu du, HAZI Fundazioaren bidez. Azoka Parisen ospatuko da otsailaren 14etik 16ra arte.

Egungo egoera dela eta, deialdi honetan adierazten diren datu guztiak behin betiko egiaztatu gabe daude, dena COVID-19ak eragindako osasun baldintzen eta azokaren antolakuntzak zehazten duen segurtasun protokoloaren menpe baitago; aurrerago egongo dira eskuragarri.

AZOKAREN IZAERA



Wine Paris & Vinexpo Paris 2022

WINE PARIS & VINEXPO PARIS azokak hirugarren edizioa du 2022koa, eta 2019an elkartu ziren VINISUD Montpellier eta VINOVISION Paris azoken ondorena da; bi horien osagarritasuna nabarmentzen da, izan ere, VINISUD Mediterraneoeko eta Europa Hegoaldeko Ardoen azoka da, eta VINOVISION PARIS, berriz, Iparraldeko ardoena.

WINE PARIS azoka VINEXPOrekin batera egingo da. Horrenbestez, ardoaren eta destilatuen bi lokomotor horien elkarketak ardoaren inguruko ekitaldi indartsu bat eragingo du, eta, gainera, nazioarteko egutegiko lehenengo feria izango da, erosketak egiteko urteko garairik onenetako batean.

Bi azokek nork bere ezaugarriak mantenduko dituzten arren, denboran eta espazioan bat eginda antolatzeak abantaila gehigarri bat eskaintzen du, Frantziaren kokapena indartu egingo baita nazioarteko ardoaren merkatuaren bidegurutze moduan.

Wine Paris-eko bisitariak sartu ahal izango dira bere pasearekin Vinexpo-ra eta alderantziz.

Euskadi Basque Country stand-a

2022ko edizioan, 54 m² inguruko stand batekin parte hartuko du Eusko Jaurlaritzak, eta kalitatezko ardoak (Jlko ardoak), Jlko txakolinak edota beste edari alkoholdun batzuk ekoitzi eta parte hartzeko interesa duten Euskadiko Elikadura Industriako enpresei emango die lekua.

Stand-a Hall Internacional-en, Internacional pabiloian, kokatuta egongo da, esparruaren sarreran bertan.

Eusko Jaurlaritzak azoka hau antolatzeko, gutxieneko partaide-kopurua beharko da.

WINE PARIS & VINEXPO PARIS AZOKAKO DATUAK

- **Erakusketa eremua:** 57.000 m² (40.000 m² Wine Paris-erako eta 17.000 m² Vinexpo-rako)
- **2020ko bisitariak:** 29.280 bisitariak (8.600 nazioarteko erosleak)
- **2020ko erakusleak:** 2.800 erakusleak
- **Webgunea:** www.vinexposium.com/wineparis-vinexpo

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK



Egoitza Euskadin duten eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleak baino ezingo dira aurkeztu.

Azoka egin aurretik

- Enpresa erakusketariak ordezkari bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du; **Euskadiko pabilioian sartu direla jakinarazi ondoren, ezin izango dute baja eman.** Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Azoka hasi bezperan, enpresak bertan egon beharko du adierazten zaion orduan, salgaiak jaso eta azoka inauguratu baino lehen standetako dekorazioari azken ukituak emateko.

Azokan zehar

- Erakusten diren produktuek **soilik Euskadikoak izan beharko dute.** Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- **Enpresak standean egon beharko du** azokak dirauen egun guztietan eta azoka zabalik dagoen ordu guztietan.

Enpresaren bat azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubi-deak (izena emateko hurrenkera...) Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.

Halaber, enpresa erakusketari batek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak Eusko Jaurlaritzak, taldekako presentziaren antolatzaile legez, antolatzaileen zigor ekonomikoren bat jasoko balu, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapan ekonomikoren bat jasoko balu, zehapan hori berehala jasanaraziko litzaieke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.

- Azoka amaitzean, enpresa bakoitzak egoki jaso beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bultzatu beharko ditu.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio-inkesta** egin beharko dute; inkesta bete eta entregatu egin beharko dute antolakuntzaren jarraibideen arabera.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA ZENBATEKOA

WINE
PARIS

VINEXPO
PARIS

Parte hartzeko eredia

2022ko edizioan, 54 m² inguruko stand batekin parte hartuko du Eusko Jaurlaritzak, eta kalitatezko ardoak (Jlko ardoak), Jlko txakolinak edota beste edari alkoholdun batzuk ekoitzi eta parte hartzeko interesa duten Euskadiko Elikadura Industriako enpresei emango die lekua.

• PARTEKATUTAKO stand eredia

Stand-a honela osatuko da:

1 erakusmahai (enpresen arteko bereizteko tabikerik gabe), 1 mahai, 3 aulki, 1 apalategi eta modalitate honetara biltzen diren enpresa guztien artean partekatzeko biltegi bat.

Parte hartzeko kostua

WINE PARÍS & VINEXPO PARIS 2022 azokan parte hartzeak kostu hau izango du:

Kostua: 2.650 € + % 21 BEZ = 3.206,5 €



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



Izena emateko epea: 2021eko urriaren 27a

Leku-kopuru mugatua denez gero, gomendatzen dugu izena emateko formularioa eta ordainagiria ahalik eta azkarren igortzea Lucia de Artazari helbide honetara: agro@camabilbao.com

Enpresa parte-hartzaileak **izen-emateko dokumentu** guztiak (izena emateko formularioa eta ordainagiria) **jaso diren hurrenkera berean hautatuko dira.**

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatutako informaziotik zuzenean ateratako datuak jarriko dira azokaren katalogo ofizialean eta sustepenerako erabiliko diren gainerako elementuetan.

ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontuaren zenbakia: **ES49 3035-0179-61-1791069900** Laboral Kutxa, HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: **“Enpresaren izena + WINE PARIS 2022”**

Izena emateko epea amaitu eta zure parte hartzea baieztatu ondoren, HAZI Fundazioko Finantza sailak faktura bat igorriko dizu dagokion kopuruarekin.

IZENA EMATEKO EPEA: 2021eko urriaren 27a

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA



GARRANTZITSUA:

Enpresa partaideak izen-emateko dokumentuak guztiak (izena emateko formularioa eta ordainagiria) jaso diren hurrenkera berean hautatuko dira. Ondorio guztietarako, izen-ematea ordaindu den eguna hartuko da izen-emateko datatzat.

Izena emateko formularioa betetzeak **EZ DU ESAN NAHI** enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartuko duenik; izan ere, horretarako beharrezkoa da gutxieneko enpresa-kopuru bat egotea. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko du izen-ematea onartu duela.

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKO JAURLARITZAREN STANDEAN EGONGO DEN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresak ordaindutako zenbatekoa itzultzeko kasu hauek besterik ez dira izango kontuan::

- Enpresa erakusketariek eskatutako espazioa azokaren antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutakoa baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek izena eman aurretik ordaindutako kuota berreskuratzeko eskubidea izango dute.
- Ezinbesteko kasuengatik edo gutxieneko partaide kopurua osatu ez delako Eusko Jaurlaritzak azokan ez parte hartzea erabakiz gero, enpresek ordaindutakoaren %100 berreskuratzeko eskubidea izango dute.

ESKEINITAKO ZERBITZUAK



Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak zerbitzu hauek eskainiko ditu HAZI Fundazioaren bidez:

Espazioa kontratatzea

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako standetan banatuko da.

Dekorazioa

Stand-a apaintzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira Euskal Autonomi Erkidegoko erakusle guztientzat.

Stand-a honela osatuko da:

- 1 erakusmahai (enpresen arteko bereizteko tabi-kerik gabe)
- 1 mahai
- 3 aulki
- 1 apalategi
- modalitate honetara biltzen diren enpresa guz-tien artean partekatzeko biltegi bat

* **Oharra:** Stand kolektiboaren modalitate hone-tan, lekuagatik, enpresa erakusleak ezingo du hotz kamerarik jarri.

Pabilioiaren mantentze-lanak (garbiketa, argindarra, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzuak, elektrizitatea, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Hala ere, enpresa bakoitzaren ardura izango da norberaren stand garbiketa aldetik baldintza ego-kietan mantentzea.

Oharra: oinarrizko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

Erakusketakidearen paketea

Pakete honetan sartzen da:

- Erakusleentzako online intranet pribaturako sarbidea.
- Erakusleentzako hiru pase.
- Azokaren katalogo ofizialaren paperezko ale bat.
- Dastatzea egiteko kit bat: listu ontzia, kortxoak ateratzekoa, drop-stops eta ur botilaratua.
- 25 gonbidapen paperezko eta 50 online gonbi-dapen.

ESKEINITAKO ZERBITZUAK



Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolaria-
ren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolaria-
k zuzenean bidaliko dio enpre-
sa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

Kopak eta listu-ontziak

Kopen alokairua erakuslearen kontu joango da.
Halere, Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu
hori kontratatzea koordinatzeko.

Azokaren katalogo ofizialean agertzea

Eusko Jaurlaritzak azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko egin beharreko tramite guztiak egingo ditu; bertan ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko fitxan jasotako datuak agertuko dira).

Gainera, egin beharreko gestioak egingo ditu gure azoken presentzia ferian ahalik eta gehien errentabilizatzeko, eta informazio zehatza emango du azokak promoziorako ematen dituen aukera guztiez.